

LANBIDE HASTAPENA: LAN-MUNDUAN SARTU EDO IRAKASKUNTZA ARAUTUETARA ITZULI

16 urtetik gorakoa bazara, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu gabe (Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua atera gabe) utzi baduzu, Lanbide Hastapeneko Programetaran sar zaitezke.

Lanbide Hastapeneko programen bidez, zenbait lanbidetan jarduten irakasten da, eta, gainera, aurreko etapan, DBHn, ikasitakoa berrikusi eta gogora ekartzen da; horrela, aurrera egin ahal izango duzu irakaskuntza arautuetan, batez ere, Lanbide Heziketako maila ertaineko hezkuntza-zikloetan.

Lanbide Hastapeneko programa bat amaitzen duzunean, bi aukera dituzu:

- **Lan-munduan sartu.** Lortu dituzun gaitasunak eta trebetasunak egiaztatzen dituen ziurtagiria jasoko duzu.
- **Irakaskuntza arautuetara itzuli.** Lanbide Heziketako maila ertaineko heziketa-zikloen bidez egin dezakezu, behin sarbide-proba gainditu eta gero.

Gai hau interesatzen bazaizu, kontsulta ezazu [Lanbide Hastapenari buruz eta ikasketa horiek non egin ditzakezun](#).